NHBBZ

Nafarroako Hezkuntza
Bereziko Baliabide Zentroa

# Mututasun selektiboa

## Eskolan goiz antzemateko, ebaluatzeko eta esku hartzeko gida.

Autoras:

Carmela Cortés Urbán
Consuelo Gallego Gallego
Pilar Marco Gallo

Gobierno de Navarra. Departamento de Educación.
ISBN:978-84-235-3163-9 Depósito legal: NA-1696-2009

Jokabidearen eta aparteko gaitasunaren modulua

Agiri hau, MUTUTASUN SELEKTIBOA GOIZ ANTZEMATEKO GIDA, Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko (NHBBZ) Jokabidearen Moduluko profesionalek egin dute, eta haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako irakasleen aholkulari gisa lortu duten eskarmentuaren eta egin duten lanaren emaitza da.

NHBBZ existitu den urteetan, mututasun selektiboa duten ikasleei buruzko aholku eskaerak etengabe gertatu dira. Honakoak izan dira gida hau egitera bultzatu gaituzten arrazoiak: batetik, denboran zehar metaturiko eskarmentua eta guztiz sinistea esku-hartze goiztiarra baliagarria dela pronostikoa hobetzeko eta arazoa finkaturik geratzearen arriskua gutxitzeko; eta bestetik, esku hartzeko jarraibideak eta estrategiak eskaintzea, irakasleek modu egokian erantzuteko ikasle horien premiei.

Mututasun selektiboa jokabidearen nahaste bat da, haurtzaroan hasten dena eta honako ezaugarri nagusia duena: haurrak zailtasuna izatea pertsona batzuekin eta egoera jakin batzuetan hitzezko hartu-emanak izateko. Askotan, arazoa agertzera ematen da haurra haur-eskolan hasten denean edo ikastetxeetan eskolatzen denean. Hala eta guztiz ere, batzuetan, ikastetxeetako profesionalek arazoa detektatu eta zenbait urteren buruan eskatzen dute laguntza. Nahastearen hasieratik esku-hartzera bitartean dagoen geroratzeak, ordea, haurraren zailtasunak finkatzea eta esku hartzeko estrategietarako erresistentzia areagotzea ekarri ohi du.

Antzemate eta esku-hartze goiztiarrak, beraz, oso neurri eraginkorrak dira ikasle hauekin lan egiteko garaian. Gida hau ikastetxeetako profesionalentzat da, eta bereziki haur hezkuntzako irakasleentzat, eta material orijinala eskaintzen du antzemate goiztiarra egiteko: *"Mututasun selektiboaren antzemate goiztiarra egiteko galde-sorta"*. Gainera, nahastearen sorrerari eta garapenari buruzko informazioa ematen du, eta antzematerako eta ebaluaziorako tresnak eskaintzen ditu. Bestalde, familiaren eta eskolaren arloetan esku hartzeko proposamenak, orientabideak eta jarraibideak eskaintzen ditu.

# AURKIBIDEA

1. ZER DA MUTUTASUN SELEKTIBOA?

2. NOLA HASTEN DA ETA GARATZEN DA MUTUTASUN SELEKTIBOA?

2.1. MSaren garapena azaltzeko eredu-eskema

2.2. MSaren sorreran eta garapenean garrantzia duten faktoreak

2.2.1. Eremu emozional eta afektiboko faktore garrantzitsuak
2.2.2. Eremu familiar eta sozialeko faktore garrantzitsuak
2.2.3. Eskola eremuko faktore garrantzitsuak

3. NOLA JAKIN HAUR BATEK MUTUTASUN SELEKTIBOA DUEN?

3.1. Antzematea

3.2. Diagnosia

3.3. Ebaluazio psikopedagogikoa

4. NOLA ESKU HARTU ESKOLAREN EREMUAN?

4.1. Esku hartzeko eredua

4.2. Familiarentzako jarraibideak eta orientabideak

4.2.1. Familia baldintzak eta baldintza pertsonal eta sozialak hobetzeko jarraibideak
4.2.2. Mintzamena estimulatzeko berariazko jarraibideak

4.3. Eskolarako jarraibideak eta orientabideak

4.3.1. Baldintza pertsonal eta sozialak hobetzeko jarraibideak.
4.3.2. Mintzamena estimulatzeko berariazko jarraibideak.

5. BIBLIOGRAFIA.

6. ERANSKINAK:

I. ERANSKINA: FAMILIAREKIKO ELKARRIZKETA

II. ERANSKINA: ESKOLAKO ELKARRIZKETA

## 1. ZER DA MUTUTASUN SELEKTIBOA?




*"Begira, aurten sartu da eskolan, Haur Hezkuntzako lehenengo mailan. Lehendabiziko hiruhilekoan, eskolatzea nahiko irregularra izan da, etengabe katarroak izan dituelako. Neskatoa ez da hasi ez irakasleekiko, ez ikaskideekiko hitzezko hartu-emanak izaten. Ez die erantzuten ez batzuek, ez besteek egiten dizkioten galderei. Irakasleak hitz egiten dionean, begirada desbideratzen du, burua jaisten du eta hatzak hozkatzen ditu. Abesteko, zenbakiak errepasatzeko edo hiztegia ikasteko jardueretan... Mirenek bokalizatu eta batzuetan siseatu egiten du, ia ez entzuteko moduan; baina ikusten duenean tutorea edo haurren bat begira dituela, hori egiteari uzten dio. Batzuetan, oso gutxitan, tutorearen galderei erantzuten die, buruarekin edo hatzarekin baietz edo ezetz esanez. Mirenek gorputz-zurruntasun gehiegizkoa du, aurpegia atezu dauka, eta ezpainak ireki samar izaten ditu.*

*Mirenen amak tutoreari esan dio etxean ederki hitz egiten duela, isilik ere ez dela egoten, eta eskolan ikasitako guztia kontatzen diola: abestiak, ipuinak... Halaber, esaten dio hautzaindegian ez zuela inorekin hitz egin, eta parkeko neskato-mutikoekin ere ez duela hitz egiten.*

(Haur Hezkuntzako 1. mailako irakasle baten deskribapena, MSa duen neskato bati buruzkoa)

Esan daiteke mututasun selektiboa dela neska-mutil batzuek hurbilekoak ez zaizkien egoera sozialetan edo/eta gutxi ezagutzen dituzten pertsonekin hitzez komunikatzeko zailtasuna.

Definizio horrek adierazten du, alde batetik, mututasun selektiboa duten haurrek beren adinerako gaitasun linguistiko eta komunikatibo egokia daukatela, eta, bestetik, gaitasun egoki hori familia hurbileko ingurunean agertzen dela, baina ez dela agertzera ematen beste ingurune batzuetan edo gutxiago ezagutzen dituzten pertsonekin.

Mututasun selektiboaren funtsezko ezaugarria da, horrenbestez, hitz egiteko inhibizio iraunkor bat, egoera sozial jakin batzuetan gertatzen dena (Olivares, 2007). Horren hasiera, normalean, bizitzako lehen urteetan izaten da, eta, askotan, nabarmen agertzen da haur hezkuntzaren garaiko eskolatzean. Mututasun selektiboa duten neska-mutil askok, gainera, nortasun ezaugarri batzuk izaten dituzte: herabetasuna, uzkurtasun soziala, mendetasuna, perfekzionismoa... Ikaslearengan halakoak metatuz gero, arazoa larriagotu daiteke edo hura

finkatzera bultza dezakete. Mintzatzeko inhibizio hori gutxitan desagertzen da modu espontaneoan, eta urte askotan luza daiteke inork ez badu esku hartzen.

Mututasun selektiboak sufrimendu pertsonal handia ekartzen du, eta ondorio gisa ingurunean egokitzeko arazo nabarmenak eragin ditzake. Garapen afektibo-emozionala baldintza ditzake, eta eragin negatiboa izan dezake (betiere, larritasunaren eta hitz egiteko errefusaren orokortze graduaren arabera) haurraren garapen sozialean, pertsonalean eta akademikoan.

## 2. NOLA HASTEN DA ETA GARATZEN DA MUTUTASUN SELEKTIBOA?

Mututasun selektiboaren sorrerari eta jatorriari buruzko eredu desberdinetan nabarmentzen da nahasteak arrazoi ugari izan ditzakeela, eta jo behar dela nahastea bi aldagai sailen arteko elkarreraginaren emaitza dela: batetik, haurraren berezko aldagai ebolutiboak (ahulezia, ikaskuntzaren historia, ahozko lengoaiarekin lotutako defizit instrumentalak...) eta bestetik, familiako eta eskolako inguruarekin eta ingurune sozialarekin loturiko ingurune-aldagaiak (familiako eta eskolako hezkuntza estiloa, pertsonen arteko harremanetako jokabideen modelatzea, familiaren soziabilitatea edo isolamendua...).

Ondoren datorren azalpen-ereduan, arazoaren jatorrian eta garapenean esku hartzen duten faktoreak zehaztu ditugu.

## 2.1. Mututasun selektiboaren sorrera eta garapena azaltzeko ereduaren eskema

### AURREZ JOKAMOLDE HORI HARRARAZTEN DUTEN FAKTOREAK

Baldintza pertsonalak, familiarrak eta eskolakoak, haurra zaurgarriago egin eta mututasun selektiboa garatzeko joera handiagoa eragiten diotenak

- **Testuinguru pertsonala:**
  . Nortasunaren ezaugarriak (zaurgarritasuna, inhibizioa...)
  . Ikasketa defizitak (arazoak ahozko hizkuntzarekin, trebetasun sozialak...)...
- **Familiako testuingurua:**
  . Harreman sozialen saihestea modelatzea
  . Hezkuntza estiloa (gehiegizko babesa, agintekeria...)
  . Ama/aitaren... nortasunaren ezaugarriak
- **Eskolako testuingurua:**
  . Hezkuntza estiloa (agintekeria, amore-emailea, aldakorra...)
  . Irakaslearen eta beste batzuen gaitasuna eta harreman-estiloa....

### MUTUTASUN SELKETIBOA AZKARTZEN DUTEN FAKTOREAK

Haurraren bizitzan agertzen diren baldintza eta inguruabar negatiboak, aurrekoekin batera mututasuna agertzea eragin dezaketenak.

- Bizi-gertaera batzuk trauma-eragile edo estres-eragile gisa bizitzea (eskolatzearen hasiera, ospitaleratzea, amarengandik bereiztea, bizitoki-aldaketak, familian aurkako inguruabarrak izatea, bigarren hizkuntza batean murgiltzea...).

### JOKABIDEA - MUTUTASUNA

- **Mututasuna**
- **Antsietatezko, saihesteko eta ihes egiteko jokabideak**

### MUTUTASUNA INDARTZEN DUTEN ETA HARI EUSTEN DIOTEN FAKTOREAK

Haurraren mututasunak bere buruan eta ohiko inguruneetan sortzen dituen inguruabarrak, mututasuna indartzen dutenak eta hari eusten diotenak.

- Hitz egiteko premia dagoen egoerak saihestean antsietatea gutxitzen dela sentitzea...
- Ingurunea haurraren jokabidearen arabera egokitzea...
- Arreta gehiegi jasotzea...
- Arazoa onartzeari buruzko kognizioak, igurikimenak eta iruzkinak...
- Ahozkoak ez diren erantzunak onartzea...

## 2.2. Mututasun selektiboaren sorreran eta garapenean garrantzia duten faktoreak




### 2.2.1. Eremu emozional eta afektiboko faktore garrantzitsuak

- Bizi-gertakariak estres-eragile moduan bizitzea: ikastetxe batean sartzea, ospitaleratzea, bizitokiz aldatzea, immigrazioarekin loturiko esperientzia negatiboak.
- Garapenaren aurreko etapetan, arrotzen aurrean emandako antsietate larriko erantzunetan azaldutako ahulezia.
- Amarekiko gehiegizko atxikimendua. Banantzearen aurrean antsietatezko jokabideak agertzea.
- Inhibizio sozialeko, herabetasuneko eta uzkurdurako jokabideak agertzea, pertsonen arteko harremanak zailduko dituztenak.
- Komunikaziorako trebetasun eta trebetasun linguistiko eskasak, ahozko komunikazioa zailtzen dutenak (mintzamenarekin edo lengoaiarekin loturiko arazoak: hiztegi murritza, ahoskera, emisioko disfluentziak...)
- Zorroztasuneko, xehetasuneko eta gehiegizko perfekzionismoko jokabideak agertzea, haurrari porrot egiteko beldurra duen egoerei aurre egitea eragozten diotenak.

### 2.2.2. Eremu familiar eta sozialeko faktore garrantzitsuak

- Hezkuntza estiloa. Estilo autoritarioa (exijentzia handia haurraren jokabidearekiko, akatsei arreta selektiboa egitea akats horiek zuzentze aldera, berehalako zuzenketak maiz eskatzea...); edo, alderantziz, gehiegizko babesaren estiloa (zailtasunak saihestea, haren ordez gauzak egitea, haurra gozatzea edozein arazoren aurrean, autonomia pertsonal txikia...).

- Familiaren modelatzea harreman sozialetarako. Harreman sozial eskasak, harremanak saihestea, isolamendu soziala, arrotzekin hitz egitea saihesteko jarraibideak ematea, haurraren estimulazio sozial desegokia...

- Familiako giroa. Familiako giroan gatazka-egoerak bizitzea.

- Haurraren senideengan antsietatearekin, inhibizioarekin eta abarrekin loturiko nortasun ezaugarriak egotea.

- Mintzamenaren nahasteak familiako kideengan. Dislaliak, totelka hitz egitea, mututasun selektiboa...

- Familian perfekzionismorako joera egotea. Haurraren lengoaiaren garapena dela-eta, igurikimen handiak izatea (mintzamenaren perfekzionismoa, maiz zuzentzea...). Gurasoek hitz egiteko eta ongi hitz egiteko gehiegi exijitzea: mintzaira zuzentzea, gaizki ahoskatzen duena errepikatzeko exijitzea...

- Ez hitz egiteari arreta gehiegi eskaintzea. Haurrari behin eta berriz galdetzen zaio ikastetxean hitz egin ote duen; hitz egin badu, norekin, zenbat eta nola. Egun jakin batean hitz egiten hastera bultzatzea...

### 2.2.3. Eskola eremuko faktore garrantzitsuak

- Irakaslearen harremanetarako estiloa. Ukitutako ikaslearekin loturak ezartzeko gaitasuna; harreman gutxi-asko hurbilei lehentasuna ematea...

- Irakaslearen ezagupena eta gaitasun profesionala nahastearekin loturiko eduki zehatzak direla eta.

- Irakaslearen hezkuntza-estiloa. Irakasleak estilo autoritarioa izan dezake (ahozko erantzunak emateko behin eta berriz exijitzea, haurren gaitasunari buruzko iruzkin negatiboak,

haurraren bilakaerarekiko igurikimen negatiboak...); gehiegizko babesa ematen zalea (hitz egiteko egoerak saihestea, keinuen bidezko laguntzak eskaintzea edo erantzuteko aukera desberdinak eskaintzea...); edo aldakorra eta kontraesankorra (koherentzia txikia eskolako neurrietan eta funtzionamenduan).

- Ingurunea haurraren zailtasunen arabera egokitzea. Ikasleak ez ditu jarduera akademiko batzuk egiten ez duelako hitz egiten (ez da arbelera ateratzen, galdera-txandetan ez du sekula parte hartzen, existituko ez balitz bezala jokatzen da...), ikaskideak haurraren "interpreteak" bilakatzen dira, keinuekin erantzuteko aukera ematen zaio...

- Irakasleek eta ikasleek igurikimen negatiboak dituzte haurraren bilakaerari eta normalizazioari buruz, eta haurrak saiheste aldera eta ihes egite aldera ematen dituen erantzunak etiketatu egiten dira: "Ez daki hizketan". "Ez du hitz egiten, katuak mihia jan dio"...

- Ez hitz egiteari arreta gehiegi eskaintzea. Irakasleak behin eta berriz eskatzen dio erantzun dezan; animatzen du; esaten dio ez kezkatzeko; ikaskideek erantzun dezan animatzen dute; taldearen arreta osoa haurraren erantzun ezean jartzen da.

Azkenik, garrantzitsua da kontuan hartzea faktore horietako batzuen presentzia eta batera gertatzea ez direla baldintza nahikoa mututasun selektiboa garatzeko. Eta mututasuneko kasu guztietan ere ez daude faktore horiek guztiak gertatzen.

## 3. NOLA JAKIN HAUR BATEK MUTUTASUN SELEKTIBOA DUEN?

Mututasuna komunikazioaren eta lengoaiaren beste nahaste edo arazo batzuetatik bereizteko, irizpide eta adierazle argiak eduki behar dira, bai eta baloraziorako prozedura eraginkorrak eta neurketarako tresna fidagarriak ere. Honakoak dira mututasun selektiboa baloratzeko eta diagnostikatzeko faseak: antzematea, diagnosia eta ebaluazio psikopedagogikoa.

### 3.1. Antzematea

Antzemate prozesua funtsezko bi alderdiren analisian zentratuko da: alde batetik, haurraren hitzezko eta hitzez besteko elkarreraginen ezaugarriak –kualitatiboak zein kuantitatiboak–; bestetik, inhibizioko edo/eta antsietateko jokabideak egotea besteekiko ahozko elkarreraginezko egoeretan.

Ondoren datoren galde-sortak alderdi horien detekzioa eta analisia gauzatzeko prozedura bat eskaintzen du. Hura betetzeko, haurraren jokabideak xehetasun guztiekin behatu behar dira denbora luze samar batean, eta ikasleak ohiko inguruneetan eta mintzakide desberdinekin agertzen dituen hitzezko, komunikazioko eta inhibizioko edo antsietateko jokabideen erregistro sistematikoa egin behar da.

### *3.1.1. Mututasun selektiboaren antzemate goiztiarra egiteko galde-sorta*

*Aztertu arretaz galde-sortako esaldi guzti-guztiak. Esaldiak ikaslearen jokabidea zuzentasunez eta egiaz definitzen badu, X bat jarri.*

| **AHOZKO ADIERAZPENA** | |
|---|---|
| 1. Ez die hitzez erantzuten irakasleak egiten dizkion galderei ................. | ...... |
| 2. Irakasleari ez dio sekula hitzez ezer eskatzen .................................. | ...... |
| 3. Ez du taldearen ahozko jardueretan parte hartzen................................ | ...... |
| 4. Gutxitan baizik ez die erantzuten irakasleei........................................ | ...... |
| 5. Ez du hitzezko elkarreraginik ikasgelako gainerako ikaskideekin......... | ...... |
| 6. Ez du hitzezko elkarreraginik patioko ikaskideekin............................ | ...... |
| 7. Gutxitan baizik ez du ikaskideekin hitz egiten..................................... | ...... |
| *8.* Gurasoen esanetan, haurrak normaltasunez hitz egiten du etxean... | ...... |

| **KOMUNIKAZIOA** | |
|---|---|
| 1. Haurrak ongi ulertzen ditu irakasleak ematen dizkion aginduak......... | ...... |
| 2. Arreta jartzen du eta interesa du ikasgelako jardueretan (ipuinen kontaketa, azalpenak, txandakako parte-hartzeak...) .............. | ...... |
| 3. Irakaslearekin begi-harremana izan ohi du, baina galdetzen zaionean, begiradari ihes egiten dio (burua jaisten du, beste alde batera begiratzen du...) ................................................................... | ...... |
| 4. Keinuak erabiltzen ditu komunikatzeko (eskatzea, seinalatzea, baieztatzea, ezetz esatea...) ................................................................ | ...... |
| *5.* Haurrekin elkarreraginean jardun eta jolasean aritzen da ......... | ...... |

| **IKASKUNTZA** | |
|---|---|
| 1. Ikasgelako ohiko jarduerak egiten ditu, ahozko adierazpena eskatzen ez duten bitartean (marraztea, moztea, pikatzea, errepasatzea, harian sartzea, eraikitzea, puzzleak egitea, sekuentziak antolatzea, letrak eta zenbakiak idaztea), beste haurren antzeko mailarekin ........................................................... | ...... |
| 2. Eskolan egindakoa eta ikasitakoa kontatzen du etxean (abestiak, ipuinak, zenbakiak,letrak...) ........................................................... | ...... |

| **BESTE JOKABIDE BATZUK** | |
|---|---|
| 1. Batzuetan gorputzean eta aurpegian zurruntasuna dauka ............ | ...... |
| 2. Ahozko elkarreraginezko edo/eta gorputz-harremanezko egoeretan, antsietate jokabideak erakusten ditu (hatzak ahoan sartzen ditu, eserlekuan batera eta bestera mugitzen da, tikak dauzka, besoak balantzaka mugitzen ditu, ilea etengabe ukitzen du, eskuak poltsikoetan edukitzen ditu...) .................................... | ....... |
| 3. Besteekiko elkarreraginezko egoeretan, saiheste-jokabideak izaten ditu (beste aldera begiratu, burua jaitsi, kontaktu fisikoa saihestu...)........................................................................... | ...... |
| 4. Besteen aurrean jarri behar izatea, besteen jomugan egotea suposatzen duten egoerak saihesten ditu................................... | ...... |
| 5. Eskolako lanak edo jarduerak egiten behar baino denbora gehiago ematen du......................................................................... | |

**Balorazio irizpideak:**

Honakoetan egonen da mututasun selektiboaren susmoa: a) lehenbiziko bi multzoetan (ahozko adierazpena eta komunikazioa), bakoitzean gutxienez lau item markatu direnean; eta b) hirugarren multzoan (ikaskuntza) gutxienez item bat markatu denean. Beste jokabide batzuk izeneko atala ez da determinantea, baina informazio osagarria ematen du.

## 3.2. Diagnosia.

Amerikako Psikiatria Elkarteak (APA), buruko nahasteei buruzko diagnosirako eta estatistikarako eskuliburuan –DSM-IV TR (2000)–, mututasun selektiboa sartu zuen umezaroaren, haurtzaroaren eta nerabezaroaren hasierako nahasteen atalean. Eskuliburu horrek mututasun selektiboaren ezaugarri klinikoak azaldu eta hura diagnostikatzeko irizpideak ematen ditu. Irizpide horiek ondoko taulan azalduko ditugu, ikastetxeek kontuan hartu beharreko gogoeta eta

zehaztapen batzuekin; halaber, ebaluazioa errazteko balizko estrategien eta tresnen zerrenda bat ematen da.

<table>
<tr><td colspan="3">1. Egoera jakin batzuetan hitz egiteko ezgaitasun iraunkorra (eskolan eta, orokorrean, ezezagunak presente dauden egoeretan), nahiz eta beste egoera batzuetan normaltasunez hitz egin (gurasoekin eta pertsona oso ezagunekin).</td></tr>
<tr><th>Eskolako testuinguruan kontuan hartzekoak</th><th>Tresnak</th><th>Arduraduna</th></tr>
<tr><td>Arazoa ebaluatzeko, argi mugatu behar da ikasleak zein egoeratan eta zeinekin hitz egiten duen eta zeinekin ez duen hitz egiten:<br><br>a) Idatziz jasoko da zein pertsona zehatzekin (helduak edo/eta haurrak) hitz egiten duen edo noizbait hitz egin duen, eta nolako harremana duten elkarrekin (aita, ama, anai-arrebak, aitona-amonak, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak, adiskideak, bizilagunak, sendagilea, saltzailea...).<br>b) Idatziz jaso ikasleak zein testuinguru eta egoera zehatzetan hitz egiten duen (familia-giroan, eskolako egoitzetan, bizilagunen eremuetan, sendagilearen ingurunean, dendetan...).</td><td>Eskolako, gizarteko eta familiako giroetan informazioa jasotzeko erregistroak.<br><br>Familiarekiko elkarrizketa (I. eranskina) eta eskolako elkarrizketa (II. eranskina).<br><br>Familia giroan egoera espontaneo batean egindako audioko nahiz bideoko grabaketa.</td><td>Aita / Ama<br>Tutorea<br>Irakasleak<br>Orientatzailea<br>Besterik</td></tr>
<tr><td colspan="3">2. Asaldura interferentzia bat da eskolako errendimendurako edo komunikazio sozialerako</td></tr>
<tr><td>Harreman sozialetan eta pertsonen arteko komunikazioan sorturiko interferentzia nabarmena da, hasieratik. Maiz askotan gertatzen da adiskide gutxi dituzten haurrak direla –jolas-orduan isolatuta egoteko eta bakarrik jolasteko joera dutenak–, ikaskideen urtebetetzeetara gonbidatzen ez dituztenak edo joaten ez direnak...<br><br>Hala eta guztiz ere, eskolako errendimenduan sortzen den interferentzia ez da argi geratzen geroagoko etapetara arte. Orokorrean, adimen gaitasun onak dituzten neska-mutilak dira, ikasteko zailtasunik ez dutenak. Halere, komunikazio faltak eta ahozko lengoaia ez erabiltzeak interferentzia bat sortzen die eduki konplexuagoak ikasteko garaian.<br><br>Diagnosirako irizpide hori baloratzeko, ikaslearen curriculum-gaitasunaren eta gaitasun sozialaren ebaluazio xehea egin behar da.</td><td>Ingurune naturaletan eginiko behaketa<br><br>Diseinatutako egoeretan eginiko behaketa</td><td>Tutorea<br><br>Beste irakasle batzuk<br><br>Orientatzailea</td></tr>
</table>

<table>
<tr><th colspan="3">3. Asaldurak gutxienez ere hilabete irauten du.</th></tr>
<tr><th>Eskolako testuinguruan kontuan hartzekoak</th><th>Tresnak</th><th>Arduraduna</th></tr>
<tr><td>Nahiko normala eta ohikoa da ikasleak egoera “berri” eta “estres-eragiletan” hitz egitea gogokoa ez izatea; esate baterako eskolatzeko garaian. Irizpidea hilabete bakarrera mugatzeak berarekin dakar adierazle hori ez izatea oso bereizgarria eskolara haur hezkuntzan lehenbiziko aldiz sartzen diren haurrak ebaluatzeko.<br><br>Hezkuntza etapa horretan, komenigarria litzateke nahaste horren iraupenaren irizpidea zabaltzea eskolatzearen lehenengo hiruhilekoa hartzeraino, ez dadin balizko mututasun selektiboa nahas eskolara pixkanaka egokitzeko prozesuarekin.</td><td>Behaketa longitudinaleko erregistroak<br><br>Irakasleei eginiko elkarrizketa (II. eranskina)</td><td>Irakasleak<br><br>Orientatzailea</td></tr>
<tr><th colspan="3">4. Hitz egiteko ezintasuna ez zaio zor egoera sozial jakin batean eskatzen den ahozko lengoaiaren ezagupen faltari edo arintasun faltari.</th></tr>
<tr><td>Mututasun selektiboa duten haurrek, orokorrean, beren adin kronologikoari dagokion gaitasun linguistikoa eta komunikatiboa izaten dute. Oro har, ez dute eskolan hitz egiten, baina etxean ahozko komunikazio normala dute.<br><br>Irizpide horri erreparatuta, eskolan erabiltzen denaz beste ama hizkuntza bat duten ikasleak hartu beharko dira kontuan, mututasuna eta gaitasun falta (ikasle etorkinak eta hizkuntza murgilketako ereduetako ikasleak...) bereizteko.</td><td>Lengoaia espontaneoko erregistroak familia giroan (bideoa, kasetea) eta beste giro batzuetan: parkea...<br><br>Komunikazio- eta hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeko tresnak: ECO, ITPA, PIR-5…</td><td>Familia<br><br>Irakasleak<br><br>Orientatzailea<br><br>Logopeda</td></tr>
</table>

| **5. Nahastea ez da hobeki azaltzen komunikazioaren nahaste bat dagoelako, eta ez da soilik agertzen GNO bat, eskizofrenia edo nahaste psikiatriko bat gertatzen ari direnean** | | |
|---|---|---|
| **Eskolako testuinguruan kontuan hartzekoak** | **Tresnak** | **Arduraduna** |
| Haurraren mututasuna nahaste psikiatriko baten sintoma bat izan daiteke. Beharrezkoa da, horrenbestez, diagnosi diferentzial bat egin eta baloratu benetan mututasun selektibo bat den ala ez den. Horretarako honakoak baztertu behar dira:<br>- Buruko ezgaitasuna<br>- Garapenaren nahaste orokorra (GNO)<br>- Lengoaiaren eta komunikazioaren nahasteak<br>- Antsietate-nahasteak, bereiztearen ondoriozko antsietatea.<br>- Besterik<br>Beste nahaste batzuen berezko sintomen presentziak adimen osasuneko profesionalek esku hartu behar izatea eskatuko du.<br><br>Komeni da kontuan izatea egitate traumatikoetatik heldu diren arazo emozional larriak ere badaudela, antzeko sintomak eragin ditzaketenak: familia hausturak, doluak, abusuak, tratu txarrak, trauma-ondoko estresa... | Proba medikoak: entzumena, neurologia...<br><br>Txosten psikologikoak eta psikiatrikoak<br><br>Mututasun selektiboaren diagnosi diferentzialerako eskala | Orientatzailea<br><br>Adimen osasunaren arloko profesionalak |

Mututasun selektiboaren diagnosia egiteko, aurreko taulan ageri diren **irizpide guztiak** gertatu behar dira. Diagnosi prozesuaren kudeaketan inplikaturiko irakasle guztien koordinazioaren ardura, berriz, ikastetxeko orientatzailearena izanen da. Diagnosia egin eta beste nahaste komorbido edo oinarrizko batzuen presentzia baztertzeko, ikaslea adimen osasuneko zerbitzuetara bideratuko da.

## 3.3. Ebaluazio psikopedagogikoa

Behin diagnosia egin ondoren, ebaluazio psikopedagogiko bat egin beharko da. Hartan, giro pertsonala, eskolakoa eta familiakoa aintzat hartuta, oinarrizko helburua izanen da definitzea zein diren aurrez mututasunaren jokabidea harrarazteko edo hura lasterragotzeko edo indartzeko faktoreak; bestalde, ikaslearen hezkuntza premiak determinatu eta behar diren mota eta gradua zehaztu beharko dira. Honakoak dira, besteak beste, ebaluatu beharreko alderdiak:

### 3.3.1. Esparru pertsonala:

- Ikaslearen baldintza komunikatibo eta linguistikoak: norekin hitz egiten duen, norekin ez, zein tonutan, zenbat luze hitz egiten duen, zenbat hitz egiten duen, zein egoeratan, keinuak erabiltzen dituen ala ez...

- Mututasunarekin lotutako jokabideak: saihesteko eta ihes egiteko jokabideak, gorputz-tentsioaren gradua...

- Arazoaren historia: balizko arrazoiak, hasierako agerpenak, arazoak denboran zehar izan duen bilakaera, kontrolatzeko ahaleginak, haien emaitzak...

- Ikaslearen gaitasun soziala: Trebetasun sozialak, taldean integratzea, adiskideak, zailtasun garrantzitsuenak, saihesteko edo ihes egiteko jokabideak...

- Ikaslearen gaitasun linguistikoa: Hizkuntzaren ezagupena, ahoskera, hiztegia, hitz egiteko arintasuna...

- Ahozko elkarrekintza errazten duten laguntza motak eta haien gradua: Erantzun dezan xaxatzea, banakako laguntza saioak egitea, bikotean egiteko jarduerak diseinatzea, jolas jarduerak diseinatu eta egitea, erantzunak modelatzea...

### 3.3.2. Eskolako esparrua:

- Irakaskuntza-ikaskuntzaren testuinguru sozio-pertsonala: Tutorearekiko lotura; aginte-estiloa; ikasgelako giro soziala; pertsonen arteko harremanak...

- Ikaslearen arazoari buruzko egozpenak, kognizioak eta igurikimenak.

- Irakaskuntza-ikaskuntzaren testuinguru fisikoa: Ikasgelaren disposizio fisikoa eta antolamenduzkoa; gelako programazioa; estrategia didaktikoak; gelako jardueren formatu ereduak; eskolan erabiltzen den tresna-hizkuntzaren ezagupen maila...

- Hartutako neurriak eta haien emaitzak.

- Irakasleen egozpenak, kognizioak eta igurikimenak ikaslea eta haren arazoa direla-eta.

### 3.3.3. Familiaren eremua

- Familiako aginte-estiloa.

- Familiaren gaitasun sozialak eta harreman-estiloa: komunikazio-trukeen eta harreman sozialen maiztasuna, zabaltasuna eta estiloa.

- Familiaren egitura eta giroa: Familiaren osaketa; etxean bizi diren pertsonak eta haien ahaidetasuna; familiaren komunikazio-estiloa...

- Semeari eta haren arazoari buruzko egozpenak, kognizioak eta igurikimenak: pentsatzea adinarekin berez konponduko dela; sinesgaitz jokatzea; ez sinestea semeak edo alabak ez duela hitz egiten; pentsatzea eskolan ez egokitzearen arazoa dela...

- Gurasoen jarduerak haurrak beste batzuekin ahozko elkarrekintzarik ez duen egoera sozialetan: Behin eta berriz eskatzen diote erantzun dezan, behartzen dute, ez erantzuteagatik zigortzen dute, sari bat agintzen diote erantzuten badu, errieta egiten diote, mintzakide baten aurrean justifikatzen dute, besarkatzen dute eta beren ulermena adierazten diote, haren desioei aurrea hartzen diete, beren premiak asetzen dituzte berak eskatu ere gabe...

- Hartutako neurriak eta emaitzak.

Ebaluazio psikopedagogikoa gutxi-asko exhaustiboa izan daiteke. Haren sakontasuna eta zuzentasuna ikaslearen baldintzen araberakoa izanen da, bai eta familia ingurunearen eta eskola ingurunearen araberakoa ere; halaber, arazoaren agerpenean eragina izaten ari diren faktore ugariren baitan egonen da.

## 4. NOLA ESKU HARTU ESKOLAREN EREMUTIK?

Mututasun selektiboa, nahaste gisa, continuum baten atal bat da. Continuum horretan daude ahoz modu murritz batean komunikatzen diren pertsonak (hitz egiteko abertsioa dutenak), hitz egiteko eta ez hitz egiteko pertsonak eta uneak hautatzen dituztenak (mututasun selektiboa) eta, azkenik, hitz egiteko egoerak eta pertsonak pixkanaka murrizten joaten diren pertsonak, ia inorekin ere ez hitz egiteraino (erabateko mututasuna).



Mututasun progresibo edo erabatekoaren aurretik, ia beti, mututasun selektiboko edo/eta hitz egiteko abertsioko historia bat dago. Esperientziak erakusten du arazoa denboran bere horretan mantentzea uzten bada, ez desagertzeaz gainera, aukera asko izanen direla egoera larriagotzeko: haurra, pixkanaka ez hitz egiteko pertsonen eta egoeren kopurua handitzen joanen da. Aurrekoa kontuan hartuta, hezkuntzan eta familian ahal bezain goiz esku-hartzea arrakasta izateko berme gehien eskaintzen dituen estrategia da.

## 4.1. Esku hartzeko eredua

Mututasunaren jatorrian dauden arrazoien aniztasuna ikusita, proposatzen den esku-hartzeak haurraren esparru “sozial” garrantzitsuak hartu beharko ditu: familiakoa, gizartekoa eta eskolakoa.

Esku-hartzearen amaierako helburua da mututasun selektiboa duen haurra gauza izatea ahozko elkarrekintzan jarduteko, modu espontaneoan, eskolako eta ingurune sozial eta familiarreko heldu era haurrekin; horrela, ahozko eskaera espontaneoak eginen ditu eta bestek entzuteko moduan erantzunen die gainerako mintzakideek egiten dizkioten galderei.

Lehenbizi, eta esku-hartzeko eredua aurkeztu baino lehen, esku hartzeko jarraibideak prestatzeko kontuan hartu behar diren oinarrizko baldintza batzuk zehaztu beharko ditugu. Hauexek dira:

(1) Gehiegizko babeseko jarrerek eta arazoa gutxitzeko edo haren aurrean ezikusiarena egiteko jarrerek –haurrei sufrimendurik ez eragitea helburu dutenek– mututasuna indartu eta areagotu besterik ez dute lortzen.

(2) Komunikazio egoera "naturalak" ez dira nahikoa izaten mututasuna gainditzeko. Haiek planifikatu behar dira, eta beste egoera batzuk diseinatu ere bai, betiere haurraren komunikazio-trukeen arrakasta bermatze aldera.

(3) Esku-hartzean, uneoro, haurra laguntzarekin egiteko gai dena hartuko da abiapuntu.

(4) Ahozko erantzunaren exijentziak progresio bati jarraituko dio, eta prozesu osoan zehar mantenduko da. Haurrengan eta giroan lortutako mailan egokitzeko joera naturala saihestu beharko da.

(5) Zorroztasunaren eta sistematikotasunaren beharrak eta ukitutako eremuen aniztasunak eskatzen dute inplikatuta dauden guztiak (familia-eskola) koordinatzea.

Esku-hartzea modu paraleloan egin beharko da familiako, gizarteko eta eskolako giroetan; eta funtsezko bi helburu izanen ditu: bata orokorra, ikaslearen baldintza pertsonal eta sozialak hobetzea bilatuko duena; bestea, berriz, berariazkoagoa, ahozko elkarrekintzan zuzenean eraginen duena.



## 4.2. Familiarentzako jarraibideak eta orientabideak

Batzuetan mututasun selektiboa duten haurren gurasoak ez dira konturatzen arazoak haurraren garapenean izan ditzakeen garrantziaz eta ondorio larriez, eta ez dute inolako neurririk hartzen. Beste batzuetan, antsietatea eta gehiegizko kezka erakusten dute, eta horiek haurraren antsietatea eta blokeoa areagotzen dute "gutxi ezagutzen diren" pertsonekiko ahozko elkarrekintzako egoeretan. Jokabide horietako bakarra ere ez da lagungarria izaten mututasuna duen haurraren egoera hobetzeko. Arazoari dagokion dimentsiotik heldu behar zaio, eta behar diren neurriak hartu behar dira haurraren garapen sozio-pertsonala errazteko eta gainerakoekiko ahozko elkarrekintzako egoeretan hark hitz egitea estimulatzeko.

### 4.2.1. Familia baldintzak eta baldintza pertsonal eta sozialak hobetzeko jarraibideak

- **Haurrari segurtasunezko, komunikazioko, soseguzko, ulermenezko eta afektuzko giroa eskaintzea.** Familiak aukera eman beharko dio adierazteko zerk ematen dion beldurra, nola sentitzen den eta zer arazo dituen. Haurrak segurtasun bat eduki beharko du: inork ez du bere jokabidea ez epaituko, ez kritikatuko. Halaber, bere ahalmenetan eta arazoa gainditzeko aukeran konfiantza guztia adierazi beharko zaio.

- **Garapen pertsonalera eta sozialera eramanen duten esperientziak bideratzea.** Daukaten garrantzi bereziarengatik, nabarmendu behar ditugu autonomia pertsonalarekin eta adinerako egokiak diren ohituren garapenarekin –elikadura, higienea, janztea, ordena...– lotutakoak. Besteak beste, etxeko lan errazetan laguntzea, beren kasa janztea eta garbitzea, gurasoek gainbegiratuta; erabaki txikiak hartzen uztea; harengan eragina duten gauzei buruz iritzia eskatzea...



- **Gauza positiboak azpimarratzea, indarguneak nabarmentzea eta maiz errefortzuak ematea haurrak ongi egiten dituen lan eta jarduerengatik.** Goraipamenak maiz erabiltzeak eragin positiboa du jarrera eta jokabideetan. Halaber, aukera daukagu haurrari bere intereseko gauzaren bat oparitzeko; edo, agian, harentzat oso gozagarria den jardueraren bat egiteko.

- **Gehiegizko babeseko jarrerekin amaitzea.** Hezkuntza-estilo autoritarioak saihestea eta gehiegizko perfekzioa ez eskatzea, bai hitz egiteari dagokionez, bai haurrak egiten dituen lan eta jarduereten ere. Gaitzespenak, komentario negatiboak, zuzentzeko eskariak... ahal den guztian gutxitu behar dira.

- **Familiako funtzionamenduaren dinamikan (errutinak, ordutegiak, prozedurak...) arau argi eta zehatzak egonen dira** eta familia osoak errespetatu beharko ditu. Haurrak haiek ezagutu behar ditu eta haien arabera jokatu beharko du. SEGURTASUNA.

- Bidea ematea **haurrak kirol ariketa fisikoren bat egin dezan**, jolas erakoa, eskolako orduetan metatu dituen tentsioak deskargatzeko.

- **Haurraren eta ikaskideen, bizilagunen eta adiskideen arteko elkarrekintza sustatzea:** eskolaz kanpoko jarduereten parte hartu, haurrentzako parkeetara joan, erkidegoko jaiak ospatu, adinaren araberako ikuskizunetara joan, haurrak etxera gonbidatu, beste haur batzuen etxeetara joan...

- **Gurasoen eta eskoaren arteko komunikazio jarraitua eduki** hezkuntza-neurriak adosteko, erabili beharreko estrategiak hautatzeko eta haurrarengan gertatzen doazen aldaketei buruzko informazioa transmititzeko.

### 4.2.2. Mintzamena estimulatzeko berariazko jarraibideak

| Zer EGIN | Zer EZ EGIN |
|---|---|
| • **Besteekiko ahozko elkarrekintzak hasteko eta mantentzeko modu egokiak modelatu eta haurrari erakutsi** (nola agurtu, jolasten uzteko nola eskatu, besteengana nola hurbildu...).<br><br>• **Haurrak beste pertsona batzuengana –adin berekoak nahiz helduak– egiten dituen ahozko nahiz ahoz besteko hurbilketak indartu.** Haurrarekin komentatu beste batzuekin jolastearen, adiskideak edukitzearen, lagunak etxera ekartzearen eta abarren atsegina eta abantailak.<br><br>• **Adinkideekiko eta helduekiko elkarrekintza soziala (eta ahozkoa) sustatu:**<br>- Jokoen prozedura haurraren premien arabera egokituz: esate baterako, ahozko esaldi laburrak (dadoaren zenbakia adierazi, karta bat eskatu, bai ala ez erantzun, aurrera egiteko lelo bat adierazi...) eskatzen dituzten ohiko mahai-jokoak (partxisa, oka, dominoa, karta-jokoak...).<br>- Bitartekari lana eginez. Taldearengana haurrarekin hurbildu, eta haiekin tarte batez jolastu; gero, pixkanaka erretiratzen joan, behin haurra taldean integratu denean. | • **Komentarioak egin haurrak ez hitz egiteari buruz** (ikasgelan hitz egin ote duen galdetu, musikan kantatu ote duen...).<br><br>• **Hari errieta egin eta balizko ondorio negatiboak aurreratu** (zigorrekin mehatxu egin, ikasmaila errepikatu, agiraka egin...).<br><br>• **Anai-arrebekin, ikaskideekin edo beste haur batzuekin konparatu** (adierazi beste haur batzuek gehiago eta hobeki hitz egiten dutela, jatorragoak direla...)<br><br>• **Komentario batzuk egin haurra hizketan noiz has daitekeen** adierazteko; une egokia zein den edo nola egin dezakeen adierazteko.<br><br>• Gehiegizko antsietatea antzematen den **egoera sozialetan hitz egitera behartu.**<br><br>• Haurraren mututasuna indartzera eta sendotzera eraman dezaketen jokabideak: **haren nahiei aurrea hartzea** haurrak oraindik ere adierazi ez dituenean; **keinu erako erantzunak ontzat ematea**, hatzekin edo keinuekin erantzun dezan iradokitzea... |

| Zer EGIN | Zer EZ EGIN |
|---|---|
| - Besteekiko ahozko komunikazioa erraztuko duten egoerak planifikatu: haurrak etxera gonbidatu; mandatuak edo erosketak egitera joan; parkera edo plazara joan; urtebetetzeetara joan...<br><br>• **Haurrak duen adiskideen zirkulua indartu eta pixkanaka zabaltzen joan.** Behin beste haur batekin hizketan hasi denean, egoera ahal den guztietan errepikatzeko ahaleginak eginen dira. Haurra taldean ongi integratuta dagoenean, beste haur batzuekin integratzen hasiko da, pixkanaka. | • **Antsietatea, kezka edo haserrea erakutsi haurraren jokabidea dela eta.**<br><br>• **Haurra beste pertsona batzuen aurrean justifikatu**, pertsona horien galderei erantzuten ez dienean ("Oso lotsatia da"...) |

## 4.3. Eskolarako jarraibideak eta orientabideak

Mututasun selektiboa egoera sozial jakin batzuetan hitz egiteko beldur desproportzionatuaren gisara jotzeak jarraibide batzuk ematen ditu hezkuntzako esku-hartzea diseinatzeko moduari buruz. Bestalde, zailtasuna gaindituko da soilik haurrak beldurra eragiten dion egoerari aurre egiten badio; bestalde, bere gaitasunen gainetik dagoen bat planteatzen bazaio, antsietatea eta beste egoera batzuei aurre egiteko erresistentzia areagotuko zaizkio.

Bestalde, mututasun selektiboa duten haurrek segurtasun handia sentitzen duten ingurune oso ezagunetan eta lotura afektibo oso positiboak ezartzen dituzten pertsonekin baizik ez dute hitz egiten.

Eskola ingurune pribilegiatua da esku-hartzea zentratzeko, zeren eta hartan pertsonen arteko era askotako harreman ugari sortzen baitira.

Aurreko lerrokadak irakurrita, bost ondorio garrantzitsu atera daitezke:

a) Eskolako esku-hartzea ezinbestekoa da. Alde batetik, zailtasunak agerian jartzen direneko inguruneetako bat da; bestalde, elkarrekintzen egoeren kopurua eta kalitatea handiak dira, eta

ahozko komunikazioa estimulatzeko eta orokortzeko agerleku ezin hobea bilakatzen dute.

b) Haurrarekin lotura afektibo “oso positiboa” ezartzea ezinbesteko baldintza da hezkuntzako esku-hartzea gauzatzeko.

c) Errazte-jarrerek eta gehiegizko babesa ematekoek hitz egiteko beldurra indartu eta are areagotu ere besterik ez dute ekartzen.

d) Haurrari elkarreraginezko egoerak planteatu behar zaizkio, ahozko trukea berez ekarriko dutenak. Baina kontu handiz planifikatu behar da, daukaten exijentzia mailaren arabera.

e) Hitz egitea beharrezkoa den egoera batean jarri aurretik, bermatu behar dugu haurrak egoera horri aurre egiteko behar dituen estrategiak eta trebetasunak dituela.

Horiek graduatuta egon behar dute, komunikazio-egoerak eskatzen duen ahozko adierazpenerako exijentzia handiagoaren edo txikiagoaren arabera. Eta horretarako, alderdi batzuk hartu beharko ditugu kontuan; esate baterako, eskatzen den erantzunaren edo esaldiaren luzea, exijitzen den tonua, presente dauden pertsona motak eta kopurua eta edukia lantzearen konplexutasuna.

### 4.3.1. Baldintza pertsonal eta sozialak hobetzeko jarraibideak

- **Haurrarekiko lotura afektibo positiboa areagotzea.** Xede horrekin, zenbait estrategia erabil daitezke: egunean zehar une jakin batzuk (2 edo 3) erabili harekin egoteko eta bere “gauzengatik” kezkatzeko; maiz maitasunezko harreman fisikoa ezartzea harekin; goraipamen pribatua eta publikoa erabili ongi egindako lanak saritzeko; hura kontuan izan ikasgelan sortzen diren egoeretan; irakaslearen arretaren kontzientzia izan dezan bilatu, irribarre eta keinuekin; ikasgelan jolasak egin eta harekin jolas-bikotea osatu...

- **Haurren arteko eta haurren eta ikastetxeko helduen arteko elkarrekintzak erraztea.** Horretarako, zenbait jarduera diseinatuko dira, bikotetan eta talde txikitan. Eskolako lan jarduerak egin daitezke; esate baterako, horma-irudiak, eraikuntzak, bi parte-hartzaile eskatzen dituzten ordenagailu-jokoak...; eta jolas libreko eta zuzendutako jolaseko jarduerak (joko soziala, joko kooperatiboa...). Irakasleak aukeratuko ditu beti taldeak. Bestalde, haurrak behar dituen laguntzak programatuko ditu eta jarduerak nola garatzen diren hurbiletik begiratuko du.

- **Mututasunaren jokabideari eustea ekar dezaketen ikaskideen eta irakasleen jarduerak saihestea;** esate baterako, haurraren keinu-erantzunak baliozkotzat eman; ahozkoaz bestelako modu batzuetara erantzuteko aukera eman edo hura iradoki; bidea eman beste haur batzuek haren ordez zerbait eskatu edo erantzun dezaten; haurraren jokabidea justifikatzen edo azaltzen duten komentarioak egin ("Ez du hitz egiten, zeren eta...).

- **Gehiegizko babesa saihestea.** Haurraren deserosotasuna ikusgarria ez den egoera sozialetan, non helduak haurra gehiegi babesteko joera agertzen baita. Komenigarria da egoera ebaztea modu orokorrean jokatuz, talde guztiarekin alegia, eta ez soilik haurrarengan zentratuz. Ez da komeni haurra gainerakoen aurrean justifikatzea, ez eta hari ulerkortasuna adieraztea, ez eta ahoz erantzun dezan tematzea... Haurrari ez zaizkio egin behar bere kabuz egin ditzakeen gauzak.

- **Erantzukizuneko lan txikiak ematea** ikasgelan eta ikastetxean, adinaren araberakoak (mandatuak egin, materiala banatu/bildu, arbela garbitu, atezainari fotokopiak eskatu...)

- **Helduak berdinen arteko elkarrekintzen gainean egiten duen kontrola areagotzea**, zertarako eta ikaslearen isolamendua saihesteko. Berdin jokatzea eskola-jarduera bere ekimenaren bararen menpe dagoen denboren gaineko kontrolarekin.

- **Guztien parte-hartzea inplikatzen duten jardueretan ikaslea oharkabean pasa dadin saihestea** (galderei erantzun, abestu, mimikaren bidez irudikatu...), bere txanda zorrotz errespetatuz eta parte hartzeko denbora bat emanez.

- **Ikasgelako programazioaren barruan, gorputzaren mugimendua eta haurren arteko kontaktu fisikoa inplikatzen duten jarduerak areagotzea** (kilimak egin, "haur-metak" egin, elkar besarkatu...).

- Ikasgelako programazioan **taldean egiteko erlaxazio ariketak** sartzea edo haiek areagotzea (arbelera atera borratzeko, materialak banatu, irakasle bati zerbait eraman, atezaintzan fotokopiak jaso, haur bat lagundu...).

- Haurrak zuzen egiten dituen jokabideak eta jarduerak maiz indartzea (eskolako lanak, azalpenetan arreta jarri, lanerako disposizioa, ikaskideei lagundu...).

- **Segurtasuneko, onarpeneko eta konfiantzako giro** bat sortu ikasgelan, ahozko komunikazioa errazteko.

- Ikaslea parte deneko taldearen hezkuntza-arretan esku hartzen duten **irakasle guztiak koordinatzeko denborak programatzea,** hezkuntzaren esku-hartzeari sendotasuna emateko. Funtsezkoa da ikasgelarekin eta haurrarekin harremana duten irakasle guztiek, orientatzailearekin batera, uler ditzaten aurrera eraman beharreko helburuak eta estrategiak, diseina eta planifika ditzaten beren saioetan egin beharreko jarduerak eta aurkitutako erantzunak eta zailtasunak elkarren artean azter ditzaten. Guztien esku-hartzeen koherentzia eta sendotasuna lagungarria izanen da emaitza positiboak lortzeko.

- **Jarraibideak emanen zaizkie gurasoei eskola-ingurunearen barruan "bizitza soziala" egin dezaten.** Ahal den guztietan, haurrak eskolara eramanen dituzte, bertatik jasoko dituzte eta eskolako patioan eskola-orduez kanpo egonen dira, haurrak ikaskideekin jolas dezan sustatuz. Gurasoek beste gizarte-harremanak ezarri beharko dituzte beste heldu batzuekin, horrekin pertsonen arteko harremanei buruzko eredu egokiak eskainiz haurrei.

- **Familiarekiko harreman estuari** eustea, informazioa emateko eta familia-ingurunean ezarri beharreko jarraibideak eta estrategiak egokitzeko.

